

SAN JUSTOKO KAROBIA BERRIRO KETAN

Juan eta Julian Aranak piztuko dute abuztuaren 1ean, goizeko 11:00etan

Karobien ke zurixka XX. mendearen erdirantz itzali zen. Dena dela, duela hogeit hamar urte Gorbeia mendiaren magalean kokaturik dagoen San Justoko karobia berreskuratu eta karea antzinako erara egin zuen Ipizki Taldeak. Ordutik, abuztuko lehenengo asteburua karegintzaren gune bihurtu da Zeanuriko (Bizkaia) Otzerinmendi auzunea. Aurten ere, abuztuaren 1ean eta 2an kareharria, egurra eta sua bilduko dituen labea ketan ikusteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.



Piztu aurretik egurrez eta kareharriz bete behar da karobia

Azken hemeretzi urteetan egin duten bezala, Juan eta Julian Aranak piztuko dute San Justoko karobia abuztuaren 1ean, zapatuan, goizeko 11:00etan, eta urteetan zehar ahaztuta eta itzalita egon zen ke zurixka San Justoko haritzen artean igoko da Gorbeia mendiaren tontorra bilatuz. Igande eguerdirantz, kare bizia oka egiten hasiko da labe-ahoa.

Aurten ere abuztuko lehen asteburuan Zeanuriko (Bizkaia) Otzerinmendi auzuneko San Justo basiliza ingurura hurbiltzen direnek jadanik desagerturik dagoen karegintzaren gorabeherak ezagutzeko aukera izango dute Ipizki Taldearen, eta Juan eta Julian Arana anaien eskutik.

1950ean azkenengoz

Duela hogeit hamar urte jarri zuten martxan 1950etik bertan behera utzita eta hondatuta zegoen karobi hau. Horretarako, urte hartan eta toki berean azkenengoz karea egin zuten Juan eta Julian Aranarekin harremanetan jarri ziren Ipizkikoak, eta beraien zuzendaritzapean konponketa eta zaharberritze lanei ekin behar izan zieten bi hilabetetan zehar, kare labea ketan jarri aurretik.

Otzerinmendi auzuneko Goikuria eta Arana familiak, Kandido(+) eta Felix(+) Goikuria anaiak alde batetik eta Juan eta Julian Arana bestetik, izan ziren 1950ean toki horretan azken aldiz lan egin zutenak. Juan eta Felix labea zaintzeaz eta karea egiteaz arduratzen ziren bitartean, Julian eta Kandidok, idipare batez baliatuz, Atxebeiko beheko errekatik —San Justo goiko aldean— kareharria, eta Azkarralde eta Igertubarri basoetatik egurra ekartzen zuten. Soroetan ongarri moduan erabili ziren 2.000 kintal —100.000 kilo— kare ekoiztu zituzten guztira.



Juan Arana, maisua, eta Igor Intxaurreaga, ikaslea. karobian lanean

Karobi frantsesa

San Justokoa karobi *frantsesa* deritzona da, hau da, kontraterrenoa aprobetxatuz eraikitakoa. Pixkanaka-pixkanaka estutzen doan zulo bat da, 4 metroko sakontasuna duena, eta 150 zentimetroko zabalera goiko aldean eta 40koa behekoan.

Kare labe *frantsesek* era honetan egiten dute lan: erregai funtzioa jokatzen duen egurrez betetzen dira, gero, gainean, kareharri jartzen da eta sua ematen zaie. Harria errez kare bihurtzen da eta karea egin ahala, egurrez eta kareharritz kargatzen da karobia. Lan horrek hainbat lagunen beharra eskatzen zuen, horregatik hiruzpalau etxe elkartuz edo auzolanean egiten zen.

Karearen erabilerak

Jadanik Antzinaroko zibilizazioek erabiltzen zuten karea, adibidez egiptiarrek gorpuak baltsamatzeko erabiltzen zuten. Euskal Herrian, erromatarren garaian eraikuntzan erabiltzen bazen ere, XVII. mendetik aurrera,

nekazaritzan erabiltzen hasi zirenean, erabat zabaldu zen.

Baina zertarako egiten zen karea? Hainbat zereginetarako: Eraikuntzan, lurraz eta uraz nahastuz etxe-paretak eta mota guztietako hormak eraikitzeko morteroa lortzen zen, eta uraz bakarrik nahastuz, baserrietako hormak zuritzeko *letxera*. Nekazaritzan, soroetako ongarri bezala eta koko edo harren kontra erabiltzen zen. Abeltzaintzan, korten desinfekziorako eta ganaduen apatxetako gaixotasunak sendatzeko. Larrugintza industrian, animalien larruari haragia kentzeko erabiltzen zen. Medikuntzan, amigdalitisa, faringitisa eta azaleko gaixotasunak sendatzeko kare urarekin gargarak egitea agintzen zen. Bitxia da arrautzak kontserbatzeko erabilera.

Ikus daitekeenez, funtzio ugari betetzen zuen kareak eta ondorioz, Euskal Herri tradizionaleko geografian nonahi azaltzen ziren karobiak. Baina, XX. mendean zehar, abonu



Abuztuaren 2an, igandean, kare bizia oka egiten hasiko da karobia



Kareharria, egurra eta sua nahasten dira karobian

ARGAZKIA: J.M.Arruabarrena

kimiko eta porlanaren produkzio industrialarekin lehiatu ezinik, bertan behera uzten hasi ziren, mendearen erdirantz guztiz desagertu arte. Azken aldian karea gehienbat ondare historikoaren zaharberritze lanetan erabili bada ere, gaur egun arlo teknikoan zein ingurumen eta profilaxi mailan aurkezten dituen abantailen ondorioz, eraikuntzan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den materiala da eta bere erabilera gero eta gehiago ari da zabaltzen.

San Justoko karobia berreskuratuz, Gorbeialdeko ondare historiko-kulturala ikertzen eta balioesten lagundu nahi du Ipizki Taldeak. Abuztuaren 1ean eta 2an berriro ikusi ahal izango da kare labea ketan!

KAROBIA PIZTEKO EKITALDIA

Eguna: abuztuaren 1ean, larunbatean.

Ordua: goizeko 11:00etan, Juan eta Julian Aranak piztuko dute karobia.

Zer egiten da: karobia egurrez betetzen da, gainean kareharria jartzen zaio eta piztu egiten da. Bertara hurbiltzen den jendeak prestaketa lanetan parte hartzeko aukera izaten du.

Hamaiketakoa: Karobia piztu ondoren, San Justora hurbildu direnen artean hamaiketakoa banatuko da: urdaia eta *pamitxea*.



Duela bi urte, Manuel Gil, Moron-eko Karearen Museoko (Sevilla) ordezkariak piztu zuen karobia, Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean. Iaz, Mallorca eta Madrildik etorrik FICAL (Foro Ibérico de la Cal) elkarteko ordezkariak piztu zuen

Informazio gehiago: gurekin harremanetan jartzeko **653016117 / 630927576**

www.ipizki.com

20 URTE ONDARE HISTORIKO-KULTURALA BERRESKURATZEN

IPIZKIrentzat ondarea iraganeko memoria izateaz gain, gaurko eta etorkizunerako baliabidea ere bada

Duela hogeit hamar urte berreskuratu zuen Ipizki Taldeak 1950etik bertan behera utzita eta hondatuta zegoen San Justoko karobia, eta ordutik abuztuko lehenengo asteburuan martxan jarri dute kare-labea. Baina ketan jartzeaz gain, urtero-urtero karobiaren inguruan zaharberritze eta egokitze lanak egin dituzte Ipizkikoek: “Lehenengo urtean karobia bera egokitu genuen; hurrengoan, egurrez eta zohiz osaturiko txabola eraiki genuen ondoan; hirugarrenean, ingurua egurrezko hesi batez itxi; laugarrenean, karobiaren horma arrakalatuta eta erortzeko arriskuan zegoela ikusiz, harrizko horma berri bat altxatu genuen. 2000.ean, egurrezko eta zohizko txabola sendotu eta karobiaren beheko aldera igarotzeko mailadun pasabidea egin genuen; 2001ean, pasabidea osatu eta goiko ahoa txukundu genituen. 2002an, labe-ahoren gainean teilatutxoia eta karobiaren beheko aldean, lurrak eusteko horma bi altxatu genituen. Hurrengo urtean, azalpenak ematen dituen panela jarri genuen, eta zaharberritze lanak amaitutzat eman genituen. 2009an, goiko aldeko labe-ahoren inguruan segurtasun hesia jarri genuen... Eta urtero, txukuntze lanak eta konponketak egiten jarraitzen dugu”.



Konponketa horiekin Zeanuriko nahiz Gorbeialdeko ondare historiko-kulturalaren berreskurapenean laguntzeaz gain, abuztuko lehen asteburuan ez ezik urteko edozein unetan bisitatu daitekeen gune interesgarri bihurtu dute San Justoko karobia: “IPIZKIrentzat ondarea iraganeko memoria izateaz gain, gaurko eta etorkizunerako baliabidea ere bada”.

Dena dela, herritarren zein erakunde publiko zein enpresa pribatuaren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen horrelako lanak aurrera eramatea eta Ipizkikoen arabera, “Juan eta Julian Aranaren gidaritzarik gabe ezinezkoa izango zitzaigun karobia berreskuratzea eta martxan jartzea, beraiek izan ziren 1950ean toki berean azken aldiz karea egin zutenetako bi eta beraiek dira gure maisuak; bestalde, dirulaguntzak ere eskertzekoak izan dira, hasiera batean Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartetik etorritakoak, eta gero, batez ere, Zeanuriko Udalarenak. Zaharberritze lanen amaiera Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak emandako laguntzari esker burutu ahal izan genuen. Horrez gainera, herritar askok eta enpresa pribatu batzuk ere lagundu digute, adibidez BBK-k, Cementos Lemonak edo Bernaola Zerrategiak”.

Kontuak kontu, aurtengoarekin hogeigarren aldiz jarraian kareharria, egurra eta sua nahastuko dira San Justoko karobi *frantsesean*. Lanbide honen gorabeherak ezagutu eta aldi berean Arratian ospatzen den erromeria bitxi eta herrikoienetako batez gozatu nahi duenak, hitzordua du datorren abuztuaren 1ean eta 2an Zeanuriko San Justo eta Pastor-en omenezko baselizaren inguruan.

San Juston Gorbeialdeko erromeriarik herrikoi eta bitxienetakoa bizitzen da

Abuztuko lehenengo asteburuan, Gorbeia mendiaren magalean, Zeanuriko (Bizkaia) Otzerinmendi auzuneko Justo eta Pastor Deunen basilizaren inguruan Arratia bailarako erromeriarik bitxi eta herrikoienetakoa ospatzen da.



Erromeria ermitaren aurrean

Aurten ere San Justo jaiei larunbatean, **abuztuaren 1ean, emango zaie hasiera karobia pizteko ekitaldiarekin.** Karobia piztu ondoren, hamaiketakoa egongo da San Justora hurbiltzen diren guztientzat: urdaia eta *pamitxa*.

14:30ean, kofradiako auzo-bazkaria egingo da San Justuko hariztipean. Bazkari herrikoi horretan edozeinek parte har dezake, aurretik izena emanda.

Beste osagai batzuekin batera, basiliza auzuneari nortasuna ematen dion ardatzetako bat da. Baina horrez gain, Otzerinmendikoaren kasuan Kofradia izenaz ezagutzen den Euskal Herri tradizionalaren gizarte eta politika antolaketaarako egituraren hainbat elementuk bizirik dira oraindik: *maiordomoa* eta *basazaina* karguak; *Kofradiaren urteko batzarra*, auzolanean egiten diren *bidegintza* eta *landare imintea*, eta abar.



Meza ostean, barauskarria banatzen du maiordomoak

Erromeria

Hurrengo egunean, abuztuaren 2an, igandean, San Justoko erromeria ospatzen da. 12:00etan meza izango da. Mezaren ostean, Itzalde Abesbatzaren kontzertua, eta jarraian maiordomoak *barauskarria* —ardao zuria eta gailetak— banatuko du jendearen artean. Ondoren paella txapelketaren sariak emango dira.

Eguraldia lagun eta ohitura jarraituz, asko izango dira da San Justuko hariztipean bazkaltzen geratuko direnak. Arratsaldean 17:30etik aurrera, bola eta mus txapelketa jokatu dira.



Bola-jokoa San Justoko ermitaren ondoko bolatokian

SAN JUSTO JAIK= OTZERINMENDIN (ZEANURIN)

ABUZTUAREN 1ean eta 2an

LARUNBATA, ABUZTUAREN 1a

- * 11:00etan: * Karobia piztea: Juan eta Julian Aranak piztuko dute.
*Piztu ondoren, HAMAIKETAKOA: urdaia eta pamitxa.
- * 14:30ean: KOFRADIAKO AUZO-BAZKARIA

INGANDEA, ABUZTUAREN 2a

- * 12:00etan: MEZA
- * Mezaren ostean, ITZALDE ABESBATZAREN kontzertua
- * BARAUSKARRIA
- * 14:00etan: Paellen lehiaketaren sari banaketa
- * 17:30ean: - Bola txapelketa
- Mus txapelketa

